


EGOITZA ERAIKINA
C MAILA**GETARIA 15**

Egilea eta data: Domingo Eceiza, 1891

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina. Eraikinaren behe oina eta lehen oina zinemara zuzendu zituzten, eta goiko lau oinak etxebizitzetara (horietako azkena estalkiko mantsardaren azpian –1927ko pisu ekonomikoa–). Oin bakoitza etxebizitza bakarraz banatzen da, mehelin paretari atxikitako eskailera batetik abiatuta eta bi patioz lagunduta. Jatorrizko zinema aretoak funtsezko eragina izan zuen fatxadaren antolamenduan (bi zatitan banatu zen, mantsardaren mailan ere). Pilastretako ordena doriko handi batek aurrealdea bi zatitan banatzen du, eta arku bikoitzak isolatzeko eta etxebizitzetara goiko baoak bertikalki lerrokatzeko balio du. Lehen oineko balkoi jarraituak ere gai nagusi hori mugatzen du. Tarterik estuena konposizio bertikal bat da, etxearen atariaren gainean. Eskala txikiagoko xehetasun eklektikoagoak ditu (adibidez, altuera osoan harlandu junteatua erabiltzea, lehen balkoiaren kurbadura edo atariaren gaineko leiho bikiak).

Babes erregimena

1.- Babes erregimen orokorra:

Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berariazko babes erregimena:

A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: laugarren oineko arotzeria.

B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: harrizko harlandua.

C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: bosgarren oineko mantsarda mantenduko da.

D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez, hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari loturiko salbuespenen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.